


IKASTETXEAREN URTEKO **P**LANA ETA URTEKO **M**EMORIA EGITEKO **G**IDA



EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Ikastetxearen Urteko Plana eta Urteko Memoria egiteko gida

Dokumentuen egileak:

José Angel Ayúcar Senosiain
Inmaculada Cereceda Rioja
Alfonso Fernández Martínez
Marcelino Hernández Garduño
Lourdes Iriarte Olarra
Jon López Armendariz
Eduardo Pérez Rodríguez
Kepa Portillo Sanz
Ismael Redondo Rojo
Lurdes Uriarte Uriarte

© Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioa.
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
2011ko maiatz

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Aurkibidea

1. Sarrera	5
<i>Ikastetxearen artikulazio dokumentala</i>	8
<i>Eskema: definizioa eta ezaugarriak</i>	9
2. IUPren atalak eta edukiak	10
<i>Sarrera [justifikazioa]</i>	11
<i>Helburu orokorrak</i>	12
<i>Irakaskuntza-jardueren programa</i>	16
<i>Eskolaz kanpoko jardueren programa</i>	17
<i>Eskolako zerbitzuak</i>	17
<i>Ekonomia kudeaketarako plana</i>	17
<i>Eskola komunitateari informazioa helarazteko plana</i>	18
<i>IUPren garapenaren eta ikastetxearen funtzionamenduaren jarraipena</i>	18
<i>Eskema: atalak eta edukiak</i>	19
3. IUP egiteko faseak eta metodologia	20
<i>Eskema: faseak eta metodologia. Baliabideen aurkibidea</i>	23
4. Urteko memoria	24
<i>Proposatutako lan-metodologia</i>	26
<i>Urteko memoriaren atalak eta edukiak</i>	27
<i>Eskema: atalak eta baliabideen aurkibidea</i>	30
5. Baliabideen txostena	31
<i>IUP egiteko baliabideen txostena</i>	
<i>Memoria egiteko baliabideen txostena</i>	

1

Ikastetxearen urteko
plana eta urteko
memoria egiteko
orientabideak

Sarrera

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak eta hezkuntza-etapetako curriculumak ezarri dituzten dekretuek diotenez, ikastetxeak autonomoak izango badira, haietako bakoitzak hainbat planifikazio- eta antolaketa-baliabide sortu, onartu eta betearazi beharko ditu; besteak beste, ikastetxeko hezkuntza-proiektua, hezkuntza-etapa bakoitzerako eta/edo irakaskuntzarako curriculum-proiektuak eta antolakuntza-eta funtzionamendu-arautegiak.

Urteko plana, beraz, baliabide bat da, eta haren bidez, ikastetxeak ikasturterako dituen helburuak zehazten dira. Aurreko ikasturteko memoria egiteaz batera, urteko plana ere egin ahal izango da, hein handi batean. Irailerako, planak bukatuta egon behar du, eta orduan, eskola-elkarte osoari eman behar zaio haren berri, bai eta Hezkuntza Ikuskaritzari ere, ikastetxera joatean hura azter eta balioets dezan.

Ikasturtean zehar ikastetxearen antolakuntzarako eta funtzionamendurako oinarritzko baliabidea den aldetik, ikastetxe bakoitzak ezarritako helburuak kontuan hartu, eta haien arabera egituratuta eta haietara egokituta egon behar du proiektuak, praktikan jartzekoa izango bada. Ikastetxeak probetxuz erabiliko badu, gainera, laburra, argia, zehatza eta errealista izan behar du. Irmoa bai, baina ez zurruna; ikastetxearen alderdi guztiak kontuan hartuko dituen; jendearen parte-hartzean oinarrituta egin beharko du, gainera, eta ebaluatzeko modukoa izan beharko du.

Horrenbestez, ikastetxearen urteko plana (hemendik aurrera, IUP) ikastetxe osoa inplikatzeko duen dokumentua da, eta ikasturte baterako hartutako erabakiak jasotzen ditu; erabaki horiek, noski, beste batzuk zehaztu behar dituzte epe luzera begira (hezkuntza-proiektuan nahiz curriculum-proiektuan jasotakoak, nagusiki), eta modu koherentean, gainera; eta, jakina, eskola-elkarteko estamentuen premiei eta eskakizunei erantzun behar diete ezinbestez (ikasleen, familien, irakasleen, administrazioari nahiz zerbitzuari langileen premiei eta eskakizunei), bai eta kanpoko eragileenei ere (auzoa, beste ikastetxe batzuk, enpresak...). Erabaki horiek erdietsi beharreko helburutzat hartu behar dira, eta horretarako, ondo bereizi behar dira egin beharreko jardunbideak, arduradunak eta epeak, bai eta jarraipen- eta ebaluazio-mekanismo egokiak ere.

Horrek guztiak hainbat eskakizun bete behar izatea dakar:

➤ **IUPak ikastetxe osoari eragiten dioten erabaki guztiak jaso behar ditu.** Horregatik, hain zuzen, dokumentuak zalua izan behar du, eta eskola-elkarteko kide guztiek ezagunak izan behar dute, ikasturte horretarako ikastetxeak lehenetsi eta elkarrekin osoari alde edo molde eragiten dioten helburuen berri jakin dezaten eta haiek gogoan har ditzaten. Horrek ez du esan nahi, hala ere, eskolan IUPak dioena baino egingo ez denik. Maila, ziklo nahiz sail bakoitzak programazio didaktiko jakin bat sortu behar du, erakundeko egitura guztiek (ziklo, maila nahiz zirkuluko taldeek, sailek, pedagogia-koordinaziorako batzordeak, mikroenpresek...) urteko planifikazioa egin behar izaten duten modu berean. Era berean, proiektu eta plan zehatzak ere egon litezke, eta haiek diseinu eta programazio jakinak izango dituzte. Bereiziki nabarmendu nahi dugu zein garrantzitsua den, egitura orokor bat den aldetik, ikastetxeak urtebeteko aldian zer lortu nahi lukeen garbi definitzea.


➤ **Hura egiteko, ezinbestekoa da denen parte-hartzea.** Begi-bistakoa denez, horrek ez du esan nahi eskola-elkarteko estamentu guztiek zuzenean parte hartu behar dutenik hura idazteko lanetan (lan hori ikastetxeko zuzendaritza-taldeari baitagokio); baina, edonola ere, dokumentuak kide guztien premiak eta eskakizunak jaso behar

ditu, eta bai lehentasunak bai hartutako erabakiak ahalik eta adostasunik handienarekin ezarri behar dira.

➤ **Ikastetxearen Urteko Planaren helburuek bi iturri hauek dituzte oinarri:**

- Ikastetxeko jarduerak epe luzera antolatzeko baliabideak (ikastetxeko hezkuntza-proiektua, curriculum-proiektua, AJA, estrategia-lerroak, zuzendaritza-proiektua, beste proiektu batzuk...), haiek garatzeko mekanismorik egokiena IUPeko urteko zehaztapenak baitira.
- Ebaluazioek ematen dituzten datuak: ikuskaritza-txostenak, ikastetxe barruko nahiz kanpoko ebaluazioak, ikasleek ikasitakoek buruzko ebaluazioak, urteko memoria, familiak gustura dauden aztertze egin ohi diren inkestak... Horrela, premia eta eskakizun orokorrei erantzuteko baliabide eraginkorra da IUP.

➤ Horretan datza, hain zuzen, IUPen baliagarritasuna: haren **helburuak zehatzak** izatean eta, beste guztien aldean, haiek **lehentasuna** izatean, eta horregatik, **epe laburrera** ere (urtebete) hura lortzeko beharrezkoak diren urratsak guztiz **antolatuta** egotean ere bai. Horregatik, ezinbestekoa da argi eta garbi definitzea helburu bakoitza lortzeko zer jardunbide egingo diren, arduradunak zein izango diren, zer epe egongo diren eta zer adierazle erabiliko diren, helburuak lortu diren ala ez jakiteko.




Ikastetxe bakoitzaren etengabeko planifikazio eta hobekuntzarako prozesuan, IUP oinarri-oinarrizko baliabidea dugu. Lehenik eta behin, **premiak** eta **aukerak** abiapuntutzat hartzen dituelako, eta behin **lehentasunak** erabaki eta gero, haiek erdiesteko beharrezkoak diren **helburuak** eta **ekinbideak** proposatzen dituelako. Halaber, proposatutako helburuak **ebaluatzeko irizpideak** eta **adierazleak** (jarraipen- eta lorpen-adierazleak, hain zuzen) ere definitzen dituenaz, **ebaluazioa** egiteko baliabideak ematen ditu, eta horregatik, baita **ondorioak** ateratzeko eta **proposamenak** egiteko modua ere. Haietan oinarritzen da, hain zuzen, **urteko memoria**. Memoria oinarri hartuta, eta kontuan hartuz zer premia eta aukera berri dauden, beste zenbait helburu proposatuko dira, eta hurrengo ikasturteko IUPan aipatuko.

➤ Gaitasun guztietan **ikasle bakoitzak gero eta emaitza hobeak lortzea**, horra hor zer **oinarrizko printzipio** izan behar duten ikastetxeko edozein arlotan hartutako erabakiek. Premisa hori, jakina, guztiz begi-bistakoa da, eta dokumentu honetan landutako atal guztiek ondo gogoan hartu behar dute.

➤ Azkenik, **IUP etengabe aztertu eta berrikusi behar da**, eta horretarako, beharrezkoa da haren helburuei jarraipena egin eta haiek ebaluatzeko prozedurak ezartzea. Horri esker, ezinbesteko aldaketak egingo dira, eta horrexek bermatuko du dokumentu hau baliagarri izatea, ikastetxearen hezkuntza-eskaintza hobetzeko mekanismoa den aldetik.

Urteko plana: ikastetxeko dokumentuen artikulazioa



ikastexearen urteko plana

atalak

metodologiaet
a hura egiteko
prozedura

ezaugarriak

arau hauek oinarri dituen

araudia

➤ **Plangintza** eragilea oinarri duen dokumentu bat, urte osokoa, ikasturterako hartu diren erabakiak jasotzen dituena. Dokumentu horretan hauek zehazten dira:

- eskola-elkartearen **premiak eta nahiak**.
- **aurtengo ikasturtean lortu nahi duguna, helburuak** adieraziz eta azken **emaitza** deskribatuz.
- nahi duguna lortzeko **zer egingo dugun**. Zer egingo dugun azaltzeaz gain, **nork** [eragileak eta arduradunak] egingo duen eta **noiz** egingo den ere zehaztuko dugu.
- zer egingo dugun esaten dugunean, esaten dugun hori egiteko **nola funtzionatuko dugun**.
- **oinarri hartutako helburuak lortu ditugula egiaztatzeko** egin beharreko urratsak.

Ikastetxeko **beste plan-proiektu batzuetan** agertzen diren proposamenak inplizituki nahiz esplizituki jasotzen dituela, hala nola hauek:

- diagnosi-ebaluazioaren emaitzei buruz ikastetxeak egindako txostena oinarri duen **hobekuntza-plana**.
- **bizikidetzeta-plana**
- **tutoretza-plana**
- **hizkuntza-normalkuntza plana...**

➤ Epe luzeko planifikazioa eta estrategia [estrategia-planak, IHP, ICP...] gehitzen dio **eraginkortasunari** [planifikazioa epe laburrera].

➤ Irakaslea gidatzeko balio behar du; beraz, dokumentuak baliagarria izan behar du, **praktikoa eta eraginkorra: laburra, argia, zehatza eta errealista**.

➤ Elkarre den aldetik, eskola osoa tartean sarrarazten du, eskola osoari eragiten dieten erabakiak biltzen baititu.

➤ **datuetan oinarrituta**, bai eta testuinguruaren diagnostikoan ere:

- aurreko ikasturtearen **memoria**
- **diagnostikorako ebaluazioaren** emaitzei buruzko txostena.
- ikasleen emaitza akademikoei buruzko txostenak.
- hezkuntza-elkarteko zenbait sektorek adierazitako **proposamenak, premiak eta itxaropenak**.

➤ **Denek parte hartuz egin beharrekoa**: eskola-elkarteko kide guztien parte-hartzea, gogoetak eta adostasuna oinarri hartuta egindako dokumentua.

➤ Dokumentu **irekia, malgua eta berrikusteko modukoa** da, baliagarri izaten jarraitzeko aldaketak egiteko aukera ematen duena.

➤ Proiektuak **koherentzia** du ikastetxeko beste dokumentu batzuekin [IHP, ICP, AJA, Zuzendaritza-Proiektua...]

➤ Haren oinarri nagusia ikastetxeko ikasle guztien **emaitzak hobetzea** da

➤ **Etengabe berrikusi** beharrekoa.

➤ 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa [EAO, maiatzaren 4koa].

➤ 1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa [EHAA, 1993ko otsailaren 25ekoa].

➤ 12/2009 Dekretua, **Haur Hezkuntzako curriculum** zehaztu, eta EAEn ikaskuntza horiek ezartzen dituen [EHAA, 2009ko urtarrilaren 30ekoa], eta 121/2010 Dekretua, apirilaren 20koa, aurrekoa aldatzen duena.

➤ 175/2007 Dekretua, urriaren 16koa, EAEko **Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum** sortu eta ezartzeko [EHAA, azaroaren 13koa], eta 97/2010 Dekretua, martxoaren 30ekoa [EHAA, 2010eko apirilaren 20koa], aurrekoa aldatzen duena. ➤ 23/2009 Dekretua, otsailaren 3koa, **Batzilergoko curriculum** sortu eta EAEn ezartzen duena [EHAA, otsailaren 27koa], eta 122/2010 Dekretua, apirilaren 20koa [EHAA, 2010eko maiatzekoa], aurrekoa aldatzen duena.

➤ Ikasturte hasierako ebazpenak.

2

Ikastetxearen urteko
plana eta urteko
memoria egiteko
orientabideak

Atalak eta edukia

1. Justifikazioa

Labur eta zehatz antzera, urte jakin baterako ikastetxeak aukeratutako helburuak justifikatzeko zer arrazoi erabili dituen azalduko dugu atal honetan. Horrez gain, beste hauek ere kontuan har litezke:

✎ **Ikastetxearen zenbait ezaugarri berezi edo unearen arabera egoerak.** Batez ere, une jakin horretan, zenbait erabaki hartzearekin zerikusia dutenak (esaterako, ikastetxean zuzendaria aldatu behar izatearekin, beste ikastetxe batekin bat egitearekin, urtemugekin, ezusteko gertaera edo arazoekin, eta abarrekin zerikusia dutenak).

✎ **Plana egiteko prozedura eta erabilitako metodologia.** Berezik azpimarratu behar da plana egiten parte hartu izanak eta OOGak edo eskola-kontseiluak hobetsi izanak zer modutan lotzen duen eskola-elkartea harekin. Puntu horri dagokionez, ez da aski izango zehatz adieraztea urteko planean denek parte hartu dutela. Horrela, bada, zuzendaritza-taldeak zer-nolako metodologia eta prozedurak ezarri dituen azaldu beharko dugu, eskola-elkarteko sektoreek parte har dezaten bermatzeko, eta beraz, IUPek hura osorik lotzen duela ziurtatzeko. Bestalde, zuzendaritza-taldeak prozesua koordinatzen zer-nolako garrantzia izan duen ere deskribatuko da, eta beste zenbait organok, ikastetxeko antolakuntza-egiturak, eskola-elkarteko nahiz eskolaz kanpoko eragilek emandako datu, iritzi eta/edo balorazioak bereizi ere bai; hala nola klaustroak, zuzendaritza-taldeak, pedagogia-batzordeak, ziklo-mailako taldeak, didaktika-departamentuak, zikloko koordinatzaileak, ikasleen ordezkariak, familien ordezkariak... Horretarako, taula bat erabil daiteke, eta hartan, IUP egiteko datuak, iritziak eta/edo balorazioak nork eman dituen garbi adierazi

	BAI	EZ	NOLA
Klaustroa			
Koordinazio Pedagogikorako Batzordea			
Ziklorako taldeak			
Maila aztertze taldeak			
Departamentu didaktikoak			
Proiektu-arduradunak			
Zikloko koordinatzaileak			
Ikasleen ordezkariak			
Ikasleen gurasoen ordezkariak, EHIGE			
Administrazioko langileak eta zerbitzuak			
Zuzendaritza-taldea			
Enpresak			
Beste batzuk (esan nor)			

2. Helburu orokorrak

Helburu kopuru zehatza adieraziko da (zehatz esatera, datuak aztertu ondoren lortutakoak, bai eta ezarritako lehentasunen arabera ere). Horrek ez du esan nahi, sarreran esan dugunaren haritik, helburu horiek soilik lortu behar ditugunik, baina bai, ordea, haiei arreta bereziz begiratuko zaiela ikastetxeko eremu guztietatik; eta horretarako, eskola-elkarte osoak parte hartu behar du, helburu horiek erdiesteko jarduerak antolatuz eta beharrezko berrikusketa- eta ebaluazio-prozesuak martxan jarri.

2.1 Helburu orokorren formulazioa

Urteko helburuak formulatzeko, taula bat erabil daiteke, eta horrela, helburuok ikastetxearen estrategiekin nahiz ebaluazioaren eta iritzien ondorioz jasotako datuekin izan beharreko **koherentzia** zehatz-mehatz bereizi.

HELBURU OROKORRAK DEFINITZEKO ITURRIAK	ESAN ZEHATZ-MEHATZ ZER HARTU DEN KONTUAN
Ikastetxeko esparru-dokumentuetan (IUP, ICP, AJA...) formulatutako ekintza-lerroak	
Ikastetxearen dokumentu estrategikoetan (plan estrategikoan, zuzendaritza-proiektuan, bizikidetza-planean, hizkuntza-proiektuan, hizkuntza-normalkuntza planean, beste zenbait planetan...) formulatutako ekintza-lerroak	
Diagnostikorako ebaluazioaren ondorio izandako "Hobekuntzarako eskuartze-plana" izenekoan bereizitako hobekuntza-jarduerak.	
Kanpoko ebaluazioetan, kontu-ikuskatzeetan eta halakoetan bereizitako hobekuntza-jarduerak	
Aurreko ikasturteko memorian jasotako proposamenak.	
Zenbait talderen emaitza akademikoen azterketa	
Ikastetxe barruko eragile eta interesdunen (familiar, ikasleen, administrazio eta zerbitzuetako langileen eta hezkuntza-arreta osagarriko langileen) eskakizunak, premiak eta proposamenak.	
Hezkuntza-administrazioaren nahiz ikastetxetik kanpoko eragileen (enpresen nahiz beste ikastetxe eta erakunde) eskakizun eta proposamenak	
Ikastetxearen autoebaluazio-prozesuan bereizitako hobekuntza-jarduerak	
Beste premia batzuk (esan zein diren)	

Helburuak aukeratzean, beharrezkoa da irizpide errealistez baliatzea, eta bestalde, tartean dauden parte-hartzea bermatzea alor guztietan, erabakiak hartzeko prozesuan. Demokratikoki kudeatutako parte-hartze hori funtsezko mugarrria da, taldeko kide guztiek behar bezala esku har dezaten lortuko badugu.

Ezinbestekoa da, halaber, parte-hartzerako eremu bakoitzak dagozkion helburuak planifikatzeko eta garatzeko lanak bere gain hartzen dituela ziurtatzea.

Adibide modura, zenbait organok, antolakuntza-egiturak eta/edo ikastetxe barruko nahiz kanpoko eragileek emandako datuak aztertu ondoren, lehenetsitako **helburu posibleak** zein diren adieraziko dugu:

- ✎ Irakasle guztien artean akordioetara iristea, ikasleek etxean egin beharreko jarduera guztien gutxi gorabeherako iraupena, ezaugarriak eta irizpideak zehazteko.
- ✎ Jolastokian ikasleen portaera hobetze aldera, irakasleek modu batera edo bestera jokatzeko prozedurak eta jarduera motak zehaztea.
- ✎ Eskolaren, auzoaren eta, oro har, norberaren inguruaren artean elkarlanean jarduteko egokiak izan litezkeen mekanismoak sortzea.
- ✎ Norberaren sormena lantzeko, ikastetxe bakoitzak ikasleei ematen dizkien aukerei buruzko ondorioak lortzea eta aztertzea.
- ✎ Ikastetxeko energia-kontsumoarekin lotutako norberaren ohiturei buruzko ondorioak lortzea eta aztertzea.
- ✎ OOGn, familien nahiz ikasleen ordezkarien eta gainerako ordezkarien arteko komunikazioa errazteko mekanismoak ezartzea.
- ✎ Musika-eskolan sartzera doan ikasleak ebaluatzeke hasierako prozedura bat egitea.
- ✎ Alfabetizaziorako XXI. mendean oinarritzat hartutako zenbait irakaspen eskaintza herritar helduei (euskara, erkidegoko hizkuntzak, teknologia berriak...).
- ✎ LHko 3. zikloko ikasleek zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasunari gero eta etekin handiagoa ateratzen diotela ziurtatzea.
- ✎ Ikastetxearen eta enpresen arteko koordinazioa areagotzea, enpresa-praktiketan ari direla bai ikasleak bai enpresak asebetetzen direla bermatzeko.
- ✎ Kalitate-, segurtasun- eta ingurumen-estandarrak oinarri hartuz, prozesukako kudeaketa-ereduak finkatzea.
- ✎ Gure ibilbideko ikastetxeen arteko elkarlana eta koordinazioa sustatzea.

Azken batean, ikastetxearen urteko planean zehaztutako helburuek ikastetxearen antolamendua eta funtzionamendua hobetzea izan behar dute oinarri nagusi. Testuinguru horretantxe dute balio eta zentzu erabatekoa ikastetxeentzat.

Alde horretatik, garrantzi handikoa da argi eta garbi azaltzea zer nolako loturak dauden zehaztutako helburuen eta estrategia-lerroen artean, baldin eta ikastetxeak haiek zehaztu baditu, edota ikastetxeko eguneroko jarduerak antolatzeke eta ordenatzeko beste baliabideekin egon litezkeenak (hala nola ikastetxearen hezkuntza-proiektua, curriculum-proiektua, hizkuntza-proiektua, kudeaketa-proiektua, antolamendu- eta funtzionamendu-erregelamendua...). Zehaztasun horiek guztiek nabarmen lagunduko diote ikastetxeari garbi ikusten zer-nolako koherentzia dagoen printzipio, asmo eta nahiak formulatzeko moduaren eta jarduera zehatzak diseinatzearen artean.

Gerta liteke formulatutako helburuak zenbait gorabeherarekin lotutako premiei erantzutea ere; besteak beste, adibidez, irakasleek ikasleak ebaluatzean sortutakoei, edo familiek izan ditzaketen itxaropenekin lotutakoei, edota ikastetxeak dituen itunekin zerikusia dutenei... Horregatik, beharrezkoa da kasu honetan ere helburu bakoitza zenbait eremurekin lotzea (bai antolakuntzarekin, bai curriculumarekin, bai harremanekin...). Ondoren, helburuekin lotuta egon litezkeen eremu horietako batzuen berri emango dugu, zehatz-mehatz:

- ✎ **Antolakuntza eta funtzionamendua;** esaterako, zuzendaritza eta lidergoa (bai eta haren banaketa ere), ikastetxeko dokumentuak, ikastetxea kudeatzeko sistema, baliabide materialak (espazioak, materialak, altzariak), giza baliabideak banatzea eta zereginak esleitzea, ikasleak banatzeko irizpideak, ikastetxeko egutegia eta ordutegiak, komunikazio-sistemak, talde lana...
- ✎ **Curriculum-garapena:** edukiak aukeratzearekin eta antolatzearekin lotutako alderdiak, ICPa eta ikasgelarako programazioa, material didaktikoak eta/edo testu-liburuak aukeratzea, eduki digitalak, baliabide didaktikoak eta teknikoak (teknologia berriak), epeak eta aldiak banatzea, ikasleak motibatzekeko estrategiak, alderdi didaktiko eta metodologikoak, gaitasunak lantzeko irakaskuntza-praktikak, ikastetxearen koordinazio pedagogikoa, zikloen eta mailen koordinazioa...

☒ **Lan-garapena**, irakasleen nahiz ikastetxeko beste langile batzuen prestakuntzarako. Tartean daude, besteak beste, ikastetxeko prestakuntza-proiektuak, gogoeta egiteko praktiketarako denbora, berrikuntza-planak... Garrantzi handikoa da ezagutzak sortuko dituzten antolakuntza-egiturak ezartzea, eta arrazoi berberagatik, ikastetxeetan lan egiten dutenen lan-garapena bermatzea.

☒ **Klima, harreman-sistema eta komunitatearen garapena**: printzipioak, denek partekatutako balioak eta arauak, tutoretzak antolatzea, bizikidetzak eta klima-arauak, informazioa eta komunikabideak kudeatzea, eskola-elkarteko zenbait sektorek ikastetxean eta erabakietan parte hartzea, ikasleen parte-hartzea, familiekiko harremana (elkarlana eta parte-hartzea), inguruarekiko eta auzoarekiko harremanak eta konpromisoa...

2.2. Jarduerak nola antolatu behar diren, helburu orokorrak lortzeari begira

Helburu bakoitza garbi definitu ostean (eta, jakina, horrek modu zehatzean eta hura aztertze moduan deskribatu behar du espero izatekoa den azken emaitza), eta aurrez definitutako alderdiren batekin nahiz estrategia-lerro jakinekin hark zer-nolako lotura duen finkaturik, honako hauek zehaztu behar dira:

☒ Garatu beharreko jarduerak zehaztea, bai eta haiek zer baldintzetan egin behar diren ere, aurreikusitako emaitza lortzeko.

☒ Antolatutako jarduera bakoitza garatzeko zer denbora dagoen finkatzea. Horri dagokionez, beharrezkoa da jardueren arteko mendekotasunari zorrotz erreparatzea, eta jarduera-esparruetan nahasita dauden pertsonak eta arduradunek batera dihardutela bermatzea.

☒ Jarduera bakoitzean zer pertsonak parte hartu behar duten zehaztea, eta azken emaitza lortu izana noren ardura izan den erabakitzea.

☒ Jarraipen eta ebaluazio egokiak egitea, aurrez zehaztutako adierazleez baliatuta.

Adibide modura, hona hemen taula bat, jarduerak antolatzen direla bermatzeko balio dezakeena:

Helburu orokorraren formulazioa				
Planifikazio estrategikorako baliabideak, estrategia-lerroak, ikastetxe-esparrua	DOKUMENTUAK IHP ICP AJA Hizk. proiektua	ESTRATEGIA-LERROAK 1. lerroa 2. lerroa 3. lerroa ...	IKASTETXE-ESPARRUA · Antolakuntza eta funtzionamendua · Curriculum-garapena · Lan-garapena · Klima, harreman-sistema eta komunitatearen garapena	
Lehenetsitako jarduerak	Arduradunak eta eragileak	Tenporalizazioa	Baliabideak	Lorpenen adierazleak

Ondoren, aurrez adibide modura erabilitako helburuetako baten planifikazioa garatuko dugu: “Jolastokian ikasleen portaera hobetze aldera, irakasleek modu batera edo bestera jokatzeko prozedurak eta jarduerak motak zehaztea”.

Demagun helburu hori zehaztu duen ikastetxean badela estrategia-lerro jakin bat, haren Hezkuntza Proiektua oinarri duena, eta honela dioela: “Ikastetxea leku seguru bat izan dadin lortzea, eta han, elkarrekin bizitzea, pertsona guztiok elkar errespetatuz”. Lehenbizi, estrategia-lerro hori bereizi behar da, eta hura helburuarekin lotu, bai eta ikastetxe-esparruekin ere. Gero, jarduerak, haiek egingo dituzten pertsonak, tenporalizazioa, ezinbesteko baliabideak eta lorpenaren adierazleak zehaztu behar dira.

Helburu orokorraren formulazioa	Irakasleek jarduteko prozedurak zehaztu behar dira, egokiak ez diren jokabideak murrizteko, jolastokian gerta litezkeen bizikidetzaren aurkakoak eta oso larriak baitira.			
Planifikazio estrategikorako baliabideak, estrategia-lerroak, ikastetxe-esparrua	<i>Estrategia-lerroak: ikastetxea leku seguru bat izan dadin lortzea, eta han, elkarrekin bizitzea, pertsona guztiok elkar errespetatuz</i> <i>Esparruak: klima, harreman-sistema eta komunitatearen garapena</i>			
Lehenetsitako jarduerak	Arduradunak eta eragileak	Tenporalizazioa	Baliabideak	Lorpenen adierazleak
1º. Jolastokiko lekurik zaurgarrienak zein diren bereiztea.	DBHko koordinatzailea <i>DBHko tutoreak</i>	Ekaina		1º. Badago jolastokian zaintzaldiak egiteko egutegi bat. Haren arabera, zenbait pertsonak bereziki zaindu beharreko lekuak zainduko dituzte, eta beste zenbaitek, berriz, jolasak eta kirolak dinamizatuko dituzte. 2º. Protokoloak garbi bereizten ditu zer urrats egin behar dituzten irakasleek jokabide okerrak, bizikidetzaren aurkakoak eta oso larriak gertatzen direnean. 3º %20 jaitsi dira jokabide okerrak, bizikidetzarako larriak eta haren aurkakoak.
2º. Jolastokiko zaintzaldiak esleitzeko irizpideak berrikustea.	DBHko koordinatzailea <i>DBHko tutoreak</i>	Ekaina		
3º. Jolasak eta kirolak programatzea eta antolatzea	Gorputz-hezkuntzako irakaslea	Ekaina		
4º. Irakasleek jarduteko prozedurak zehaztu behar dira, egokiak ez diren jokabideak murrizteko, jolastokian gerta litezkeen bizikidetzaren aurkakoak eta oso larriak baitira.	DBHko koordinatzailea	Ekaina		
5º. Ikasleak jolastokian gaizki dabilzala eta, irakasleek nola jokatu behar duten adostea.	DBHko koordinatzailea <i>DBHko tutoreak</i>	Ekaina		

3. Irakaskuntza-jardueren programa

Irakaskuntza-jardueren planak osagai hauek izango ditu: ohiko irakaskuntza-jardueren plana eta irakaskuntza-jarduera osagarrien plana. Klaustroari dagokio programa hori egitea eta, hala dagokionean, hark hautatutako batzorde bati.

3.1. Ohiko irakaskuntza-jardueren programa

Jarduera-plan horretan bilduko dira ikastetxearen eta eskola-jardueraren ikasturteko antolaketaarako eta funtzionamendurako hartutako **erabakiak eta irizpideak**, baldin eta lehenengo aldiz proposatzen badira, edo egoeraren arabera badira. Betiere, kontuan hartuko dira ikasleen beharrak eta erabilgarri dauden baliabideak erabaki eta irizpide horiek ezartzerakoan. Ez badira lehen aldiz proposatzen, ikastetxeko jarduera planifikatzeko eta antolatzeke beste agiri batzuetan jasoko dira, normalean, AJAn.

Erabaki eta irizpide horien honako adibide hauek aipa ditzakegu:

- ✎ Egutegia eta ebaluazio-datak.
- ✎ Irakasleei eginkizunak esleitzea, ikastetxean igaro beharreko irakastorduak eta irakastordu ez diren orduak banatzea, tutoretzak banatzea...
- ✎ Familiei egin beharreko jakinarazpenak.
- ✎ Ikasleak taldekatzea.
- ✎ Hezkuntza-laguntza eta -indartzea antolatzea.
- ✎ Hezkuntza-taldeak koordinatzea.
- ✎ Espazio komunak banatzea.
- ✎ Baliabide didaktikoak antolatzea.

Ikastetxeak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren **esperientzietan eta programetan** parte hartzen duenean, horiek ere jasoko dira, bai eta ikastetxeak sustatuta ikasturtean zehar gauzatuko diren **proiektuak** ere, batez ere Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Euskal Autonomia Erkidegoko beste sail eta erakunde batzuek, estatuko erakundeek edo Europar Batasunak onartutakoak.

Azkenik, **langileen prestakuntzarekin eta garapenarekin** lotutako alderdiak ere jasoko dira (ikastetxearen prestakuntza-plana, irakasleen parte-hartzea ikastetxeko prestakuntza-jardueretan eta beren proiektuekin lotutako jardueretan, ikastetxetik kanpo gauzatzen badira ere...).

3.2. Irakaskuntza-jarduera osagarrien programa

Jarduera osagarrien artean daude eskola-orduetan ikasleekin egin beharreko jarduera didaktikoak izan eta programazioaren parte diren arren, izaeraz desberdintzat hartzen direnak, bai haiek egiten diren une nahiz lekuagatik, bai baliabideengatik, bai ikastetxeak zenbateraino esku hartu behar duen kontuan hartuta. Jarduera horiek ikasle guztien eskura egon behar dute, eta hauek dira nagusiak:

- ✎ egonaldiak barnetegi-erregimenean
- ✎ jaialdiak ikastetxean

- ✎ eskola-kanpaina bereziak
- ✎ ikasgelaz kanpoko jarduerak: bisitak, landa-lanak...
- ✎ irteerak, ikasturte amaierako bidaiak, ikasle-trukeak...

4. Eskolaz kanpoko jardueren programa.

Eskolaz kanpoko jarduera deritze curriculumarekin zerikusi zuzenik ez duten hezkuntza-jarduerak; eskola-orduetatik kanpo egiten dira eta parte-hartzea borondatezkoa da. Begi-bistakoa da jarduera horiek bat etorri behar dutela IUPekin, ICPekin eta IUPen zehaztutako helburuekin, eta hura egoki garatzeko balio behar duela. Horregatik, hura zorrotz planifikatu beharra dago eta haietan oinarrituta egon behar du. Helburuak, arduradunak, noiz eta non egingo diren definituko da, bai eta ikasleek hartan nola parte hartuko duten ere. Alderdi eta ondorio ekonomikoak urteko ekonomia-kudeaketarako programan azaldu beharko dira.

5. Ikastetxeko zerbitzuak

Ikastetxeko zerbitzuak (jangela, liburutegia, garraiobideak...) garrantzi handiko guneak dira, eta horregatik, haiek antolatze eta abian jartzeko definituko diren irizpideek bat etorri beharko dute ikastetxeko jarduerak planifikatu eta ordenatzeko erabili izan diren gainerako baliabideekin. Hori dela eta, lehen aldiz finkatutako edo ikasturte bateko bidea egindako proposamenak egon litezke; proposamen horiek IUPeko dokumentu batean jaso beharko dira. Aitzitik, ikasturtez ikasturte bere horretan dirauten alderdiak AJAn jasoko dira, zerbitzu horien funtzionamendu eta kudeaketarako dokumentu zehatzagoak direlako.

6. Ekonomia-kudeaketarako plana

Diru-baliabideak banatzea garrantzi handiko baliabidea da, ikastetxe bateko helburuak eta lehentasunak zehazteari begira. Benetan zaila da ekonomia-kudeaketarako denbora-markoak (ohiko urtea) eta ikastetxearen urteko plana (ikasturtea) bat ez etortzea, baina, hala ere, IUP egiten ari garela, komeni da ekonomia-baliabideen urteko planifikazioa gauzatzeko modukoa izatea (kontuan hartu behar dugu ezin daitekeela jakin hurrengo ohiko urteko aurrekontuen berri zehatzik). Horregatik, atal horretan honako alderdi hauek hartuko ditugu aintzat:

- ✎ Onartutako aurrekontua zenbateraino bete den: horretarako, aski da orri batean aurrekontuko zenbait sail jasotzea, eta une horretara arte zenbat diru erabili den (gastuak). Dokumentu honek ekonomia-kudeaketarako aplikazio informatikoa errazten du.
- ✎ Hurrengo aurrekontuetarako gastu-irizpide eta -aurreikuspenak; batez ere, funtzionamenduarekin lotuta ez dauden gastuei dagokienez: hornikuntzekin, prestakuntzarekin, obra txikiekin eta abarrekin zerikusia dutenak.

Aurrekontu ekonomikoa Hezkuntza Sailak ezarritako datak baino lehen egingo da.

7. Hezkuntza-komunitateari informazioa helarazteko plana

Komunikazio arin eta alde askotarikoa (bertikala, behera eta gora doana eta horizontala) ezinbesteko lehen urratsa da, eskola-elkartearen parte-hartzea sustatuko badugu. Horregatik, ezinbestekoa da bitartekoak eta baliabideak zehaztea, informazio-prozesuak eraginkor bihurtuko baditugu. Horrenbestez, IUPekin lotutako edozer gauzaren berri emateko, eskola-elkarteko sektoreekin batera erabili izan diren une, kanal eta arduradunak zehaztuko dira.

8. IUPren garapenaren eta ikastetxearen funtzionamenduaren jarraipena

IUPen garapenari buruzko gogoetak eta azterketak ahalik eta modurik parte-hartzaileenean egin beharra dago, eta horretarako, ikasturte hasieran erabakiko da zer prozesuri jarraituko zaion. Zuzendaritza Taldeak egin dezake, edo horretarako propio sortutako batzorde batek; batzorde horretan, eskola-elkarteko hainbat estamentutako pertsonak hartuko dute parte. Era berean, OOGri horren guztiaren berri eman beharko zaio behin gutxienez, ikasturtearen erdi aldera, aurrez planifikatuarekiko ikastetxearen jarduerari buruzko gogoeta eta azterketa sustatzeko. Planaren jarraipena eta ebaluazioa oinarri dituen informazioa funtsezkoa da Ikastetxearen Urteko Memoria egiteko.

9. Eranskinak

Atal honetan, OOGren onarpen-aktaz gain, urteko planifikazioarekin lotutako beste dokumentu batzuk ere aipatu ahal izango dira (urteko hobekuntzetarako esku-hartze plana, urteko bizikidetza-plana, tutoretza-jardueretarako plana, eta abar), plana bera ulertzeko azalpen bat ematen duten neurrian.

Nolanahi ere, gogoan izan behar da dokumentu horiek aipatutako zenbait helburu eta jarduera ikastetxean bertan lehenetsi eta ikasturteko Ikastetxearen Urteko Planeko helburu orokorretako batzuk izan daitezkeela.

urteko planaren edukiei buruzko eskema

1. Sarrera [justifikazioa]
2. Helburu orokorrak
 - 2.1. Helburu orokorrak
 - 2.2. Helburu orokorrak lortzeko egin beharreko jarduerari buruzko plangintza.
3. Irakaskuntza-jardueren programa
 - 3.1. Ohiko irakaskuntza-jarduerak
 - Antolakuntza eta funtzionamendua.
 - Esperientziak, programak eta proiektuak.
 - Prestakuntza eta garapen profesionala
 - 3.2. Irakaskuntza-jarduera osagarriari buruzko programa
4. Eskolaz kanpoko jardueren programa.
5. Ikastetxeko zerbitzuak.
6. Ekonomia kudeaketarako plana.
7. Hezkuntza-komunitateari informazioa helarazteko plana.
8. IUPren garapenaren eta ikastetxearen funtzionamenduaren jarraipena.
9. Eranskinak.
 - 9.1. OOGren onarpen-akta.
 - 9.2. Ikastetxearen plan zehatzak: hobekuntza-plana, urteko elkarbizitza-plana, tutore-plana...

ikastetxearen urteko plana

definizioa eta
ezaugarriak

atalak eta edukia

plana egiteko
metodologia eta
prozesua

1 SARRERA

- ↓ **Helburuak aukeratu izana justifikatzeko balio duten arrazoiei buruzko azalpena:** eskola-elkartearen premiei eta eskakizunei erantzutea, ikastetxearen indarguneak finkatzea eta ahulguneak hobetzea...
- ↓ Ikastetxearen zenbait **ezaugarri berezi** edo **unearen arabera egoerak**. Batez ere, une jakin horretan, zenbait erabaki hartzearekin zerikusia dutenak (esaterako, ikastetxean zuzendaria aldatu behar izatearekin, beste ikastetxe batekin bat egitearekin...).
- ↓ **Plana egiteko prozesua** eta hura modu parte-hartzailean egin dela bermatzeko **metodologia** azaltzea eta zehaztea, hari zenbait eragilek eta egiturak egindako ekarpenak adieraziz.

2 HELBURU OROKORRAK

- ↓ **Helburu orokorrak adieraztea** *hau da, zer lortu nahi dugun*. Helburu horiek errealak, bideragarriak, denek onartutakoak, ebaluatzeko modukoak eta plana egiten diharduten talde-sektoreek lehenetsitakoak izan behar dute. Helburuak azaltzean, modu zehatz eta ebaluatzeko modukoan adierazi behar da zein den ikastetxeak espero duen azken emaitza.
- Garrantzi handikoa da zehaztea eta deskribatzea zer-nolako lotura duten helburu orokor horiek ikastetxearen estrategia-lerro nagusiekin; hau da, Hezkuntza-proiektuarekin, Estrategia-planarekin, ICPrekin, Antolakuntza- eta funtzionamendu-araudiarekin...
- **Ikastetxeko zenbait esparrurekin zer-nolako lotura** duten ere azaldu behar da; zehatz esatera, antolakuntza eta funtzionamenduarekin, curriculumaren garapenarekin, garapen profesionalarekin, komunitatearen harreman-sare eta garapenarekin zer-nolako lotura duen, hain zuzen.
- Azkenik, gogoan hartutako **beste zenbait iturri** bereiziko dira: *diagnosi-ebaluaziorako emaitzei buruzko ikastetxearen txostena, memorian jasotako balioespenak, taldeen emaitza akademikoei buruzko azterketa, administrazio barruko nahiz kanpoko eragileen eskakizunak, premiak eta proposamenak, autoebaluazio-prozesuak...*
- ↓ **Proposatutako helburuak lortzeko landu beharreko jardueren buruzko plangintza;** hau da, *zer egin behar dugu helburuak lortzeko eta nola jardungo dugu bide horretan?* Landu beharreko **jarduerak** ere adieraziko dira, bai eta horretarako **ardura** nori emango zaion, **tenporalizazioa**, **adierazleak** eta lortu nahi den azken emaitza.

3 IRAKASKUNTZA-JARDUEREN PROGRAMA

- ↓ **Ohiko irakaskuntza-jarduerak**
Ikastetxearen funtzionamendu orokorrearekin lotutako zenbait alderdi. Tutoretzak banatzeko, zenbait gune eta denbora-tarte esleitzeko, ordutegiak finkatzeko, ikasleei laguntzeko eta haien lana finkatzeko erabilitako irizpideak.
- Esperientziak, programak eta proiektuak.** Departamentuaren esperientziak eta programak, proiektuak, esperientzia pilotuak eta abar, eta haien guztien lotura ikastetxea hobetzeko planean proposatutako helburuekin eta jardunbideekin.
- Prestakuntza eta garapen profesionala**
- ↓ **Irakaskuntza-jarduerak osagarrien programa**
Eskola-orduetan ikasleekin egiten diren jarduerak didaktikoak eta , programazioan egon arren, ezaugarri bereziak dituztenak. Barnetegietako egonaldiak, ikastetxeko jaiegunak, hezkuntza-kanpaina bereziak, eskolaz kanpoko jarduerak (ibilaldiak, lekuan lekuko lanak eta abar), ibilaldiak, ikasturte amaierako bidaiak, ikasle-trukeak...

4 ESKOLAZ KANPOKO JARDUEREN PROGRAMA.

- ↓ Eskolaz kanpoko jarduerak deritze curriculumarekin zerikusi zuzenik ez duten hezkuntza-jardueri, eskola-orduetatik kanpo egiten dira eta parte-hartzea borondatezkoa da.
- ↓ Jarduerak horiek **bat etorri behar dute** IUPeKin, ICPrekin eta IUPen zehaztutako helburuekin, eta hura egoki garatzeko balio behar dute. Horregatik, hura zorrotz planifikatu beharra dago eta haietan oinarrituta egon behar du.

5 IKASTETXEKO ZERBITZUAK

- ↓ Ikastetxeko zerbitzuak (**jangela, liburutegia, garraioa...**) garrantzi handiko guneak dira, eta horregatik, IUPen sartu behar dira, beste edozein elementuren antzera.

6 EKONOMIA-KUDEAKETARAKO PLANA

- ↓ Sarritan, **diru-baliabideak banatzeko irizpideak** dira ikastetxe baten curriculum-helburu nagusiak zein diren jakiteko adierazlerik baliagarrienak, nahiz eta ageriko helburuak oso bestelakoak izan. Horregatik, behar-beharrezkoa da gastuetarako irizpideek IUParen helburuak oinarri izatea.

7 HEZKUNTZA-KOMUNITATEARI INFORMAZIOA PLANA

- ↓ Atal horretan zehaztuko dira zer **prozedura, bide, bitarteko** eta **baliabide, arduradun** eta abar erabili izan dituen ikastetxeak informazioa eta komunikazioa kudeatzeko.
- ↓ Komunikazio arin eta alde askotarikoa (bertikala, behera eta gora doana eta horizontala) ezinbesteko lehen urratsa da, eskola-elkartearen parte-hartzea sustatuko badugu.

8 IUPren GARAPENAREN JARRAIPENA

- ↓ IUPen garapenari buruzko gogoeta eta azterketa modu parte-hartzailean egin behar da. Zuzendaritza-taldeak izan dezake horretarako ardura, edo hark aukeratutako batzorde batek; batzorde horretan, eskola-elkarteko hainbat estamentutako pertsonak hartuko dute parte, eta hauek definituko dituzte:
 - Ezinbesteko irizpideak, objektuak eta informazioa (ebaluazio-saioen, galdera sorten, behaketen eta abarren ondorio, inondik ere), eta haiek biltzeko baliabideak...
 - Informazioa tratatzearekin lotutako kontuak (nork, noiz eta nola aztertuko duen hura)
 - OOGari informatzeko eta memoria egiteko behar diren ondorioak biltzea.

9 ERANSKINAK

- ↓ Atal honetan, **OOGren onarpen-aktaz** gain, urteko **planifikazioarekin lotutako beste dokumentu batzuk** ere aipatu ahal izango dira: **hobekuntza-plana, urteko elkarbizitza-plana, hizkuntza-normalizaziorako plana, tutore-plana** eta abar.

3

Ikastetxearen urteko
plana eta urteko
memoria egiteko
orientabideak

Faseak eta metodologia

Ikastetxearen Urteko Plana modu parte-hartzailean egin behar da, eta horrek esan nahi du lan horretan eskola-elkarteko kide guztiek hartu behar dutela parte (familiak, irakasleak, ikasleak...), eta hori bermatzea elkarteko organoei dagokiela (departamentuei, etapa-zikloei, zuzendaritza-taldeari, pedagogia-koordinaziorako batzordeari, OOGri, guraso-elkarteari...), bai eta norberari ere.

Hortaz, elkarlanean jardutea, talde txikitan lankidetzan aritzea, guztiz funtsezkoa da, eta eskola-elkarte osoaren parte-hartzea ezinbestekoa denez, erabat beharrezkoa da denen artean adostutako akordio batera iristea; akordio horretan, gainera, irakasleei dagokie protagonista izatea. Hori dela eta, irakasleek prestakuntza tekniko handia izan beharko dute, bai eta zenbait ezaugarri pertsonal jakin ere, eta horrez gain, zenbait ardura ere hartu beharko dituzte beren gain.

Kontua, beraz, hainbat gaitasun eta trebetasun lantzea da; besteak beste, autoanalisia, plangintza, programazioa, jarraipena, koordinazioa, jardunbideen kontrola eta ebaluazioa. Horien guztien bidez, ikastetxearen autonomia bermatu eta sendotuko da.

IUP modu parte-hartzailean egingo bada, metodologia jakin bati jarraitu beharko zaio ezinbestez; hona hemen haren ezaugarri nagusiak:

Plangintza

IUP koordinatzeko ardura zuzendaritza-taldeari dagokio. Hala ere, zuzendaritza-taldeak beste pertsona edo lantalde batzuen esku utz dezake ardura hori (Pedagogia Batzordearen esku, esate baterako). Haren zeregin nagusia bidean den prozesua dinamizatzea da (materialak prestatzea, taldeei haren berri ematea, ekarpenak biltzea, zatikako sintesiak egitea, akordioetara iristea, behin betiko zirriborroa idaztea eta abar).

Besteak beste, ardura hauek izango ditu:

- ✎ Urteko planaren edukiei buruzko eskema bat egitea.
- ✎ Zer taldek parte hartu behar duten zehaztea: zuzendaritza-taldea, departamentuak, etapak/zikloak, OOG, EHIGE, ikasleak...
- ✎ Talde bakoitzak zer zeregin eta funtzio izango dituen zehaztea.
- ✎ Prozesua modu parte-hartzailean egiteko moduko baliabideak ematea.
- ✎ Jarduera bakoitza egiteko epeak egutegi batean zehaztea.

Plana egitea

- ✎ Zuzendaritza-taldearen proposamenari jarraituz, talde bakoitzak zer premia dituen aztertu eta ikasturterako zer nahi eta espero duen zehaztuko du.
- ✎ Interes handikoa izan liteke ikasleen parte-hartzea, bai haien ikasgelaren nahiz ikastetxearen funtzionamenduari buruzko iritziak emanez, bai zer espero eta nahi duten esanez. Ikastetxe bakoitzak zer-nolako ohiturak dituen, halaxe zehaztuko dira partaidetza-mekanismo (ordezkari, tutore...) eta -prozedurak.
- ✎ Zuzendaritza-taldeak ekarpenen sintesi bat egin eta helburuak adieraziko ditu.

- ⌞ Talde bakoitzari adierazitako helburuak itzuliko zaizkie, haien berri izan dezaten, eta haiek aztertuz, lehentasunak finka ditzaten (Taldeen Izenezko Teknika). Taldeen balioespen hori, hala ere, ez da erabakitzailea izango, baina oso kontuan hartuko du zuzendaritza-taldeak.
- ⌞ Talde guztiek egindako proposamenak oinarri hartuz, zuzendaritza-taldeak ikasturterako helburuak finkatu eta idatziko ditu.
- ⌞ Helburu horien berri talde eta egiturei eman (departamentu, etapa-ziklo, pedagogia-batzorde, OOG...) eta haiek plangintza egoki bat egingo dute.
- ⌞ Ekarpen horiek guztiak bildu eta bateratu ondoren, ikastetxearen plangintza orokorra osatuko da.
- ⌞ Parte-hartzaile guztiei plangintzaren berri emango zaie, ikuspegi zabal bat izan dezaten eta ezinbesteko iruditzen zaizkien oharrak egin ditzaten.

Plana behin betiko idaztea

Azken ohar horiek bildu eta aztertu ondoren, plana idatziko da, modu labur, arin eta argian betiere.

Plana onartzea

- ⌞ Denboraz, IUPen kopia bana emango zaie OOGko kideei, hura irakur eta azter dezaten.
- ⌞ Beharrezkoa balitz, edo OOGk hala eskatuko balu, denen artean irakur liteke plana, kide bakoitzak iruzkinak eta oharrak egiteko moduan. Nolanahi ere, irakurketa hori ez da egingo inondik ere plana onartzeko egingo den saio berean; izan ere, plana onartu aurretik, OOGko kideek gogoeta egiteko nahikoa denbora izan beharko dute.

Plana hedatzea

Eskola-elkarteari urteko plana eskura izateko prozeduraren nondik norakoen berri emango zaio.

ikastetxearen urteko plana

plana egiteko metodologia eta prozesua

tresnak  eta txantiloiak 

METODOLOGIA

↓ IUP **modu parte-hartzailean egin behar da**, eta horrek esan nahi du lan horretan eskola-elkarteko kide guztiek hartu behar dutela parte [familiak, irakasleak, ikasleak...], eta hori bermatzea elkarteko organoei dagokiela [departamentuei, etapa-zikloei, zuzendaritza-taldeari, pedagogia-koordinaziorako batzordeari, OOGri, GERi], bai eta norberari ere.

↓ Hortaz, **elkarlanean jardutea, talde txikitan lankidetzan aritzea**, guztiz funtsezkoa da, eta eskola-elkarte osoaren parte-hartzea ezinbestekoa denez, erabat beharrezkoa da denen artean adostutako akordio batera iristea; akordio horretan, gainera, irakasleei dagokie protagonista izatea. Hori dela eta, irakasleek prestakuntza tekniko handia izan beharko dute, bai eta zenbait ezaugarri pertsonal jakin ere, eta horrez gain, zenbait ardura ere hartu beharko dituzte beren gain.

↓ Kontua, beraz, hainbat gaitasun eta trebetasun lantzea da; besteak beste, autoanalisia, plangintza, programazioa, jarraipena, koordinazioa, jardunbideen kontrola eta ebaluazioa. Horien guztien bidez, ikastetxearen autonomia bermatu eta sendotuko da.




FASEAK




↓ Plangintza H1


IUP koordinatzeko **ardura** zuzendaritza-taldeari dagokio, baina beste pertsona edo lantalde batzuen esku ere utz dezake ardura hori. Zeregin hauek izango ditu:

- **bidean den prozesua dinamizatzea** [materialak prestatzea, taldeei haren berri ematea, ekarpenak biltzea, zatikako sintesiak egitea, akordioetara iristea, behin betiko zirriborroa idaztea eta abar].
- Urteko Planaren edukiei buruzko **eskema** ematea.
- **Zer taldek parte hartu behar duten** zehaztea: Zuzendaritza-Taldea, etapak/zikloak, OOG, GE, Ikasleak...
- **Talde bakoitzak zer zeregin eta funtzio** izango dituen zehaztea.
- Prozesua modu parte-hartzailean egiteko moduko **baliabideak** ematea. Jarduera bakoitza egiteko epeak **egutegi** batean zehaztea.

↓ Plana egitea

DAFO  izeneko analisi baten bidez, talde  H2  H3 bakoitzak **zer premia dituen aztertu** eta ikasturterako zer nahi eta **espero** duen zehaztuko du.

- Interes handikoa izan liteke ikasleen parte-hartzea. Ikasleek bi modutan parte har dezakete: bai haien ikasgelaren nahiz ikastetxearen funtzionamenduari buruzko iritzia eman, bai zer espero eta nahi duten esanez.
- Ekarpenei  H4 sintesi bat egin eta diagnostikoa eta helburu nagusiak idatziko dira.
- Plana egiteko ardura duen taldeak helburuen **behin-behineko zirriborroa idatziko du**, beste hainbat iturri eta ekarpen guztiak kontuan hartuz. Talde bakoitzari adierazitako helburuak itzuliko zaizkie, haien berri izan dezaten, eta haiek aztertuz, **lehenetsunak finka ditzaten**  **[Talde Nominalaren Teknika]**.
- Taldeen balioespen hori  H5 ez da erabakitzailea izango, baina zuzendaritza-taldeak oso kontuan hartuko du.
- Talde guztiek egindako proposamenak oinarri hartuz, zuzendaritza-taldeak ikasturterako **helburuak finkatuko ditu**. **[ikusi 3. txantiloia]**


- Helburu horien berri talde eta egiturei eman  H6 (departamentu, etapa-ziklo, beste lantalde batzuk...) eta haiek plangintza egoki bat egingo dute. Ondoren, ekarpenak gehituko dira. **[ikusi 4. txantiloia]**
- Parte-hartzaile guztiei plangintzaren berri emango zaie, ikuspegi zabal bat izan dezaten eta ezinbesteko iruditzen zaizkien **oharrak** egin ditzaten.

↓ Plana onartzea eta hedatzea

- Denboraz, IUPren kopia bana emango zaie OOGeko edo Eskola-Kontseiluko kideei, hura irakur eta azter dezaten. Plana onartzeko saioaren aurretik beste saio bat antola liteke, eta denen artean plana irakurri, kide bakoitzak iruzkinak eta oharrak egiteko moduan.

↓ Plana idaztea

- Azken iruzkinak bildu ondoren, ziur dakigunean irakasle guztiek dutela planaren berri, zegozkien lanetan parte hartu dutela, eta beraz, proiektua taldelanean onorio dela, plana idazteari ekingo zaio.



4

Ikastetxearen urteko
plana eta urteko
memoria egiteko
orientabideak

Urteko memoria

Urteko Memoria epe motzerako balio duen kudeaketa-baliabide bat da, eta sistematikoki aztertzen du ikastetxeak oro har nola funtzionatzen duen, bai eta ikasleen ikaskuntza-prozesua eta emaitzak zertan diren ere. Ikastetxearen jarduera nagusiak laburbiltzen ditu (IUPak aipatu ala ez), ikasturte bakoitzaren amaieran haren berri zehatz-mehatz jakiteko moduan. Aldi berean, egindako azterketak eta balioespenak zein izan diren, ikastetxean esku hartzeko irizpideak eta hobekuntzarako helburuak azpimarratuko ditu urteko memoriak.

Urteko memoriak, beraz, garrantzi bikoitza du. Batetik, **ebaluatzailea** da, ikastetxean egindako jarduera adierazgarrienen azterketa eta balioespena egitea dakarrelako, eta horri esker, haren funtzionamenduaren berri jakin eta Eskola Elkartearen zer lorpen izan dituen jakin dezakegulako. Bestetik, **gerora begirakoa** ere bada, esku hartzeko eta hobekuntzak egiteko proposamen zehatzak egiten dituelako.

Urteko Memoria egitearekin lotutako ebaluazioak lau zeregin mota egitea dakar:

Ikastetxeak IUPen **lehenetsitako jarduerari** buruzko datu garrantzitsuak jasotzea.

Datu horiek interpretatzea, IUPen bertan aurreikusitako irizpideak oinarri hartuta (lorpen-maila eta horrekin lotutako ondorioak).

IUPen agertzen ez diren arren, ikastetxean egindako **jarduera adierazgarriari** buruzko datuak jasotzea, eta haiek ikastetxeko dokumentu instituzionalekin bat ote datozen aztertzea.

Hurrengo ikasturteari begira, hobekuntza-proposamenak egitea.

Beraz, Urteko Memoriak iritziak hartzera bultzatu behar gaitu, eta horretarako, garrantzizko informazioari buruzko hainbat iturri erabili behar dira (zenbakiak, iritziak, oharak eta abar), eta horrela, gauzak hobetze aldera, proposamenak egin: zer aldatu, kendu edo gehitu behar den; jakina, gogoan izan behar da hori guztia izango dela hurrengo ikasturterako plangintza egiten hasteko abiapuntua.

Urteko Memoria modu parte-hartzailean egiteko ardura nagusia Zuzendaritza Taldeari dagokio. Alde horretatik, ezinbesteko informazio guztia bildu eta hartaz baliatzea nahitaezkoa bada ere, ondo gogoan hartu behar da informazio horren zati handi bat aurrez eskura izan dezakegula. Zenbait datu bildu eta aztertzeko nahiz ondorioak eta proposamenak zehazteko, hainbat egoeraz baliatuko gara; besteak beste, hona hemen egoera horietako batzuk: IUPen zatikako autoebaluazioa, ikasleak ebaluatze saioak, gobernu- eta pedagogia-organoak berrikusteko bilerak eta familiekin egin beharreko bilerak.

Beraz, Memoriak ikastetxe barruko ebaluazioa egiteko balio du, Eskola Elkarte osoak parte hartuz, autoebaluazioa egiteko, eta horren oinarri nagusia IUP da, urteko plangintza egiteko baliabidea den aldetik, eta ikastetxeak eskura dituen gainerako dokumentuekin bat datorren neurrian. Horrez gain, ikastetxea egoki kudeatzeko hainbat kalitate-elementu bermatzea ere badakar: plangintza, garapena eta ebaluazioa, hain zuzen; eta, jakina, eskola-elkarteari nahiz administrazioari horien guztien berri emateko aukera ere bai.

PROPOSATUTAKO LAN-METODOLOGIA

IUPekin egiten genuen moduan, Memoria egiteko ere jendearen parte-hartzea proposatzen dugu, eta horretarako, ezinbestekoa da metodologia zehatz bati jarraitzea. Taula honetan azaltzen dira memoria antolatzearekin, egitearekin, idaztearekin, onartzearekin eta hedatzearekin lotutako zenbait zeregin, eta haietan esku hartuko duten pertsonen eta taldeen berri ere ematen dugu:

TALDEA	ZEREGINAK, FUNTZIOAK
Zuzendaritza-taldea	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Urteko Memoria egiteko jarraitu behar den prozesua zehaztea eta horren berri ematea: <ul style="list-style-type: none"> <i>Urteko Memoriaren edukiei buruzko eskema egitea</i> <i>Hartan zer taldek parte hartuko duten zehaztea</i> <i>Talde bakoitzak zer funtzio eta zeregin izango dituen zehaztea</i> <i>Parte-hartzea bermatuko duten baliabideak zehaztea (ikusi eranskinak)</i> <i>Jarduera bakoitzerako epeak egutegi batean zehaztea.</i> ➤ Informazioa biltzea eta hartaz baliatzea. ➤ Plana egiteko parte-hartzea koordinatzea eta dinamizatzea. ➤ IUPi dagokionez, hari dagozkion helburuak ebaluatzea. ➤ Zenbait iritzi formulatzea. ➤ Ondorioak azaltzea eta hobekuntza-proposamenak egitea. ➤ Ekarpenguztiak oinarri hartuta, sintesi bat egitea, hurrengo ikasturterako IUP egitean kontuan hartu beharreko hobekuntza-iradokizunak azpimarratuz. ➤ Plana talde guztiei ematea, haren berri izan dezaten eta, hura aztertuz, zenbait proposamen egiteko (horretarako beharrik balego). ➤ Behin betiko plana idaztea eta haren berri ematea, hura eskola-elkartearen nahiz administrazioaren eskura jarritz.
OOG	<ul style="list-style-type: none"> ➤ OOGren beraren funtzionamendua ebaluatzea. ➤ Memoria osoa aztertzea eta onartzea. ➤ Ondorioak azaltzea eta hobekuntza-proposamenak egitea.
Irakasleak	<ul style="list-style-type: none"> ➤ IUPi dagokionez, haiei dagozkien helburuak ebaluatzea, ondorioak eta hobekuntza-proposamenak adieraziz. ➤ Irakasle bakoitzak parte hartzeaz gain (norberaren ikasleak, norberaren irakasle-lana ebaluatuz...), irakasle-taldeak zikloen, etapen, departamentuen eta abarren bidez ere parte hartuko du: ikasgelarako programazioa, ICPrekiko egokitzea, gorabeherak, ikasleen emaitza akademikoen azterketa, NCE. Hobekuntza-proposamenak ere egingo dituzte.
Koordinazio Pedagogikorako Batzordea	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Plana egiteko lanetan parte hartzea, datu adierazgarriak aztertzea eta hobekuntza-proposamenak egitea. ➤ Zuzendaritza-taldeak bere funtzioak haren esku utziko balitu, plana egiteko prozesua dinamizatzea. ➤ IUPi dagokionez, haiei dagozkien helburuak ebaluatzea, ondorioak eta hobekuntza-proposamenak adieraziz.
Ikasleak	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Ikastetxean oro har, eta zehazki ikasgelan gertatu ohi denari buruzko iritzi eta usteak ematea. ➤ IUPi dagokionez, haiei dagozkien helburuak ebaluatzea, ondorioak eta hobekuntza-proposamenak adieraziz.
Guraso-elkartea	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Familiak zenbait informazio eman behar dituzte, hartu beharreko erabakiak errealitatearekin eta haiek espero dutenarekin bat etor daitezzen. ➤ IUPi dagokionez, haiei dagozkien helburuak ebaluatzea, ondorioak eta hobekuntza-proposamenak adieraziz.

URTEKO MEMORIAREN ATALAK ETA EDUKIAK

1. Sarrera

Memoria idaztearen helburua ikasturtea amaitzerako eskola-elkarteari ikastetxearen egoeraren berri ematea dela kontuan hartuta, memorian ezinbestez aipatu beharko dira bai hura egiteko zer prozesuri jarraitu zaion, bai hurrengo IUPerako egindako hobekuntza-proposamenak zein diren. Beste alderdi adierazgarri batzuk ere aipa litezke.

2. Helburu orokorren ebaluazioa

2.1. IUPak lehenetsitako helburuak zenbateraino lortu diren zehaztea. Ikasturtea amaitzean edo ikasturtean zehar, ikasturte hasieran IUPen adierazitako helburu nagusiak ebaluatu beharko dira, landutakoak aztertuz eta haiek zenbateraino lortu ote diren zehaztuz.

2.2. Ikasleen ikaskuntza-prozesuak ebaluatzea. Ikasturteko zenbait unetan, (ebaluazio bakoitza amaitzean, hiruhilekoa amaitzean...) ebaluazio bat egin izango da arlo edo esperientzia-esparru bakoitzeko helburuen eta edukien lorpenaren gainean, mailaka, zikloka, etapaka, sailka, etab., ikastetxe bakoitzeko antolaketa-egituraren arabera.

Ikasturtea amaitzean, lortutako emaitzak aztertuko dira programatutako helburuei dagokienez, NCEn, curriculum anitzeko programetan edo beste banakako programa edo plan batzuetan jasotakoak barne. Azterketa hori ez da kuantitatiboa soilik izango; kasurik nabarmenenetan, emaitza horiek lortu izanaren arrazoiak ere aztertu beharko dira (ikasgela/talde baten emaitza txarrak, absentismoa, ikasgai, maila nahiz ziklo jakin bati dagozkion emaitza azpimarragarriak...). Ebaluazio horiek egiteko erreferentziak ikasgelarako programazioak izango dira, eta haiek ICPn oinarrituko dira (horrela, izan ere, haien baliagarritasuna ere ebaluatuko da).

3. Irakaskuntza-jardueren programaren ebaluazioa

3.1. Ohiko irakaskuntza-jarduerak

3.1.1. Antolakuntza eta funtzionamendua. DAE osatzen duten fitxek aipatzen dituzten antolakuntzari lotutako alderdiak ebaluatu behar dira, eta horretarako, IUPen ezarritako irizpideak hartu behar dira oinarritzat.

3.1.2. Esperientziak, programak eta proiektuak. Ikastetxean abian jarritako berrikuntza-proiektu bakoitza ebaluatuko du hura landu duen lantaldeak, eta horrela, harekin jarraitzea edo hura nolabait egokitzea erabakiko da, horretarako adierazgarriak diren datuetan oinarrituz (ikus proiektuen memoria). Horrenbestez, atal honetan ebaluazio horren sintesi bat baino ez dugu aipatuko, eta horri dagokionez, harekin lotutako ondorioak eta jarraipen-proposamenak azalduko ditugu.

3.1.3. Prestakuntza eta garapen profesionala. Bai prestakuntza-ikastaroak ikastetxean bertan ematen badira, bai eskola-orduetan

prestakuntza-ikastaroetara joan behar izan bada, ezinbestekoa da prestakuntza hori ebaluatzea, eta horretarako, hartan parte hartzea erabakitzeke erabilitako irizpideak oinarri hartzea.

3.1.4. Irakasleen koordinazioa Ikasturte hasieran IUPen finkatutakoari jarraituz, irakasleen koordinazioa ebaluatuko da (arduradunak, epeak, parte-hartzea, eraginkortasuna eta abar).

3.2. Irakaskuntza-jarduera osagarriak

Jarduera osagarriak IUPen helburu orokorrekin nahiz ikastetxearen filosofiarekin (ICPrekin) bat ote datorren ere ebaluatu beharra dago, bai eta haren plangintza/programazioa eta garapena ere. Hona hemen balioespen hori egiterakoan kontuan hartu beharreko alderdi batzuk: curriculum garatzeko egindako ekarpena, tenporalizazioa ikasturtean zehar, inplikaturako ikasleak eta zikloak-mailak...

4. Eskolaz kanpoko jardueren planaren ebaluazioa

Eskolaz kanpoko jarduerak hezkuntza-izaera dutenez, balioetsi egin behar da zer neurritan bete diren IUPn proposaturako helburuak, eta horiek zer koherentzia duten ikastetxeko planteamenduekin.

5. Ikastetxeko zerbitzuen ebaluazioa

Ikastetxeko zerbitzuak (jangela, liburutegia, garraioak...) hezkuntza-zerbitzu garrantzitsuak dira eta, ikasleen laguntzarako zerbitzuak direla albo batera utzita, haiek ere ebaluatu egin behar dira.

6. Kudeaketa-programaren ebaluazioa

Diruaz baliatzeko modua eta gastuak egokitzen ote diren ere ebaluatuko da, IUPen definitutako irizpideak oinarritzat hartuta.

7. Hezkuntza-komunitateari informazioa helarazteko planaren ebaluazioa

Ebaluatu beharra dago, halaber, bai jendearen parte-hartzea, bai horretarako ikastetxeak erabilitako baliabide eta estrategiak. Jendeak parte hartuko badu, informazioa ezinbesteko baldintza da, ez bairik gabe.

Alde horretatik, hainbat gauza ebaluatu behar dira: irakasleekiko, ikasleekiko, familieekiko, administrazioarekiko eta beste zenbait alderdirekiko komunikazioa; erabilitako prozedurak eta komunikabideak eta haiek eraginkorrak ote diren; eskola-elkartea pozik ote dagoen...

8. IUPren garapenaren eta ikastetxearen funtzionamenduaren jarraipenaren ebaluazioa

Ikastetxearen nondik norakoak ebaluatzeko erabilitako metodologia, baliabideak, epeak eta abar balioetsiko dira, eta hori guztia IUPen ezarritakoarekin bat ote datorren aztertuko da. Hirugarren hiru hilekoan zehar egingo da ebaluazio hori, eta, horretarako, kontuan hartuko dira IUPn aipaturako prozesu-adierazleak.

9. Ondorioak eta hobekuntzak egiteko proposamenak.

Atal honetan, sintesi bat egin, eta IUPen, ICP oinarri duten ikasgelarako programazioetan edo lanerako beste plan batzuetan ezarritakoa abiapuntutzat hartuz, ardurapean dituzten esparruak ebaluatu dituzten irakasleen, ikasleen eta beste zenbait talderen (OOG, guraso-elkartea, zuzendaritza-taldea, pedagogia-batzordea, zikloak...) ekarpenak bilduko dira. Era berean, aurreikusi gabeko esku-hartzeetatik sortutako hobekuntza-proposamenak ere kontuan hartuko dira hurrengo ikasturteko IUPn sartzea komeni dela irizten bada.

11. Eranskinak.

Atal honetan, **OOGren onarpen-akta** eta ikastetxeak ezinbestekotzat jotzen dituen beste zenbait dokumentu jasoko dira.

Urteko Memoriaren edukiei buruzko eskema










1. Sarrera [justifikazioa]
2. Helburu orokorren ebaluazioa
 - 2.1. IUPek lehenetsitako helburuak zenbateraino lortu diren zehaztea
 - 2.2. Ikasleen ikaskuntza-prozesuak ebaluatzea
3. Irakaskuntza-jardueren programaren ebaluazioa
 - 3.1. Ohiko irakaskuntza-jarduerak
 - Antolakuntza eta funtzionamendua
 - Esperientziak, programak eta proiektuak
 - Prestakuntza eta garapen profesionala
 - Irakasleen koordinazioa: etapa-zikloak, departamentuak, pedagogia-batzordea...
 - 3.2. irakaskuntza-jarduera osagarriak
4. Eskolaz kanpoko jardueren buruzko planaren programazioa
5. Ikastetxeko zerbitzuen ebaluazioa
6. Ekonomi-kudeaketarako planaren ebaluazioa
7. Hezkuntza-komunitateari informazioa helarazteko planaren ebaluazioa
8. IUPren garapenaren eta ikastetxeko funtzionamenduaren jarraipenaren ebaluazioa
9. Ondorioak eta hobekuntzak egiteko proposamenak.
10. Eranskinak.
 - OOGaren onarpen-akta.
 - Beste batzuk

urteko memoria


definizioa

- Epe motzerako balio duen **kudeaketa-baliabide** bat da, eta sistematikoki **ebaluatzen** du ikastetxeak oro har nola funtzionatzen duen, bai eta ikasleen ikaskuntza-prozesua eta emaitzak zertan diren ere.
- **Alderdi ebaluatzailea:** ikastetxean egindako **jarduera adierazgarrien azterketa eta balioespena** egitea dakar memoriak [IUPek aipatu ala ez]; helburuak hauek dira:
 - haren funtzionamenduaren berri eman eta Eskola Elkartean zer lorpen izan dituen jakitea.
 - ikasturte bakoitzaren amaieran, haren **egoera** zein den jakitea.
- Horrez gain, **beste iturri batzuk** ere erabil daitezke, gogoetak, balioespenak eta proposamenak jasotzeko:
 - emaitza akademikoen azterketa.
 - jendea pozik dagoen aztertzeko inkestak
 - eskola-elkartearen, administrazioaren eta beste zenbait erakunderen premiak, eskakizunak eta proposamenak.
 - kanpo-ebaluazioak eta autoebaluazio-prozesuak...
- **Alderdi prospektiboa:** egindako azterketak eta balioespenak oinarri hartuz, honako hauek adieraziko dira:
 - ikastetxean **esku hartzeko irizpideak**
 - etorkizunean, ikastetxearekin lotutako jarduerak **hobetzeko helburuak**.
- Dokumentu honek **izaera instrumental**, praktikoa eta eraginkorra du: Irakaskuntzarako ildo nagusi izan behar duela eta, dokumentuak **laburra, argia, zehatza eta errealista** izan behar du.
- **Denen parte-hartzean oinarritutakoa:** eskola-elkartearen parte-hartzea oinarri duen dokumentua da.
- Elkarte den aldetik, eskola osoa tartean sarrarazten du, eskola osoari eragiten dieten gogoetak, balioespenak eta proposamenak biltzen baititu.

atalak

- **Sarrera.**
 - Hura **egiteko prozesuan eta lan-metodologian** bereziki azpimarratu behar da hark nola eta zenbateraino lotzen duen eskola-elkarte osoa [parte-hartzea eta adostasuna].
 - IUPen proposatutako helburuak garatzean eragina izan duten ikastetxearekin lotutako **alderdi bereziak edo unean uneko egoerarekin lotutako gorabeherak**.
- **Helburu orokorren ebaluazioa.**
 - **IUPek lehenetsitako helburuak** zenbateraino lortu diren ebaluatuko da  
 - **Esperientzia-esparru bakoitzeko helburuak eta edukiak zenbateraino lortu ote diren** ere ebaluatuko da, mailak, zikloak, etapak, departamentuak eta abar kontuan hartuz 
- **Irakaskuntza-jardueren programaren ebaluazioa.**
 - **Ohiko irakaskuntza-jarduerak**
 - Erabakiak hartzean erabilitako irizpideen balioespena, esparru hauetan: **antolakuntza eta funtzionamendua**; haiekin jarraitu behar den nahiz haiek egokitu behar diren erabakitzeko landutako **esperientziak, programak eta proiektuak**; **prestakuntza eta garapen profesionalerako plana**; **IUPek ezarritako koordinazio-mekanismoak**   
 - **Irakaskuntza-jarduera osagarriak** 
 - **Plangintzarekin, garapenarekin eta emaitzekin** lotutako zenbait alderdi balioestea eta IUPak proposatutako helburuekin eta ikastetxearen filosofiarekin orokorrekin **bat ote datorren** aztertzea.
- **Eskolaz kanpoko jardueren programaren eta ikastetxeko zerbitzuen ebaluazioa.**  
- **Ekonomia-kudeaketarako planaren ebaluazioa.**
 - Diruaz baliatzeko modua eta gastuak egokitzen ote diren ere ebaluatuko da, IUPean definitutako irizpideak oinarritzat hartuta.
- **Hezkuntza-komunitateari informazioa helarazteko planaren ebaluazioa.**
 - Ebaluatu beharra dago, halaber, bai jendearen **parte-hartzea**, bai horretarako ikastetxeak erabilitako baliabide eta estrategiak. Irakasleekin, ikasleekin eta familiekin komunikatzeko erabili izan diren prozedurak eta bideak **zenbateraino izan diren eraginkorrak** ebaluatzea.
- **IUPren garapenaren jarraipenaren ebaluazioa.**
- **Ondorioak eta hobekuntzak egiteko proposamenak.**
 - Sintesi bat egin, eta, IUPean, ICPa oinarri duten ikasgelarako programazioetan edo lanerako beste plan batzuetan ezarritakoa abiapuntutzat hartuz, ardurapean dituzten esparruak ebaluatu dituzten irakasleen, ikasleen eta beste zenbait talderen (OOG, EHIGE, zuzendaritza-taldea, IGI, zikloak...) ekarpenak bilduko dira.
- **ERANSKINAK**
 - OOGaren onarpen-akta eta abar.

eskema



5

Ikastetxearen urteko
plana eta urteko
memoria egiteko
orientabideak

Baliabideen txostena

Urteko plana egiteko baliabideen laburpen koadroa

cuadro de herramientas y plantillas del plan anual

Urteko Planaren atalak Apartados de del Plan Anual	Informazioa jasotzeko tresnak Herramientas para la recogida de información	Urteko Plana idazteko txantiloia Plantillas para la redacción del plan
Azal orria eta aurkibidea Portada e índice		1
1. Sarrera Introducción		2
2. Helburu orokorrak Objetivos generales		
2.1. Helburu orokorrak Objetivos generales	2, 3, 4, 5	3
2.2. Jardueren pplingintza Planificación de actividades	6	4
3. Programa de actividades docentes Irakaskuntza-jardueren programa		
3.1. Actividades docentes ordinarias Ohiko irakaskuntza-jarduerak		
· <i>Antolakuntza eta funtzionamendu atalak</i> <i>Aspectos de organización y funcionamiento</i>		5
· <i>Esperientziak, programak eta proiektuak</i> <i>Experiencias, programas y proyectos</i>		6
· <i>Prestakuntza eta garapen profesionala</i> <i>Formación y desarrollo profesional</i>		7
3.2. Irakaskuntza-jarduera osagarrien programa Programa de actividades complementarias		8
4. Eskolaz kanpoko jardueren programa Programa de actividades extraescolares		9
5. Eskolako zerbitzuak Servicios escolares		10
6. Ekonomia-kudeaketarako plana Plan de gestión económica		11
7. Hezkuntza-komunitateari informazio plana Plan de información a la comunidad educativa		12
8. IUPren garapenaren jarraipena Seguimiento del desarrollo del PAC		13
9. Eranskinak Anexos		14

IUP partaidetzaz egiteko proposamena

planning de elaboración participativa del PAC

EGUTEGIA CALENDARIO	JARDUERAK ACTIVIDADES		ARDURADUNA RESPONSABLE
<i>Iraila/Septiembre</i> <i>Data/Fecha:</i> <i>Ordutegia/Horario:</i>	Egite prozesuaren plangintza Egutegia Baliabideak eta arauak Idatziz emana	Planificación de la elaboración Calendario Pautas e instrumentos Entrega por escrito	Zuzendaritza taldea <i>Equipo Directivo o grupo en quien delegue</i>
	Memoriaren analisia Ikasturterako nahiak eta espektatibak Egoeraren ikerketa: baliabideak. aukerak...	Análisis de la memoria Necesidades, deseos y expectativas para el curso Estudio de la situación: medios, posibilidades...	OOG, GE, ZT, BP Etapak/zikloak Ikasleria <i>OMR, AMPA, ED, CCP,</i> <i>Etapas/ciclos</i> <i>Alumnado</i>
	Z.T ak esandako jarraipideak erabiliz ekarpenak egin.	Formulación de aportaciones, según las pautas señaladas por el E.D.	<i>berdin</i> <i>Idem</i>
	Idazlana eta sintesia. Ekarpenak komunikatu eta helburutan bihurtu.	Redacción y síntesis Comunicación de las aportaciones y transformación de las mismas en objetivos	Zuzendaritza taldea <i>Equipo Directivo</i>
	Helburuak lehenetsi. Lan plangintzak egin	Priorización de objetivos Elaboración de planes de trabajo	Irakasle taldeak Beste talde batzuk: OOG, GE, zerbitz., eskolaz kanpoko jard. <i>Equipos profesoras/es</i> <i>Otros equipos: OMR,</i> <i>AMPA, servicios, act.</i> <i>extraes.</i>
	Aurkeztutako proposamenak jaso, ikertu eta estabaidatu Behin-betiko proposamenak idatzi. Behin-betiko dokumentoaren aurkezpena.	Recogida, estudio y debate de las propuestas presentadas Redacción de la propuesta definitiva Presentación del documento definitivo	Zuzendaritza taldea <i>Equipo Directivo</i>
	Onarpena	Aprobación	OOG OMR
	Eskola elkarteari eta Hezkuntzako Ikuskaritzari komunikatu.	Comunicación a la comunidad educativa e Inspección Educativa	Zuzendaritza taldea <i>Equipo Directivo</i>

Beharren analisia análisis de necesidades

Taldea Grupo:

[OOG OMR / Zuzendaritza taldea equipo directivo / Guraso elkarte AMPA / Etapa-zikloa etapa-ciclo...]

- ⬇ Pasa den ikasturteko memoria irakurri eta aztertu ondoren antzematen da funtzionamendua izan dela... *Tras la lectura y análisis de la memoria del curso anterior se detecta que el funcionamiento ha sido...*

Egokia Adecuado en:

Zergatiak Causas:

--	--

Hobetu beharrekoa Mejorable en:

Zergatiak Causas:

--	--

- ⬇ Horregaitik Urteko Plana egiterakoan kontutan izan behar genuke... *Por ello, al planificar el curso habría que tener en cuenta...*

--

- ⬇ Kurtso honetan, beste zer beharrei garrantzitsua ikusten duzu erantzuna ematea? *Además, ¿a qué otras necesidades consideras importante dar respuesta este curso?*

--

Beharren analisia: ikasleriari zuzendutako galdekizuna

análisis de necesidades: cuestionario para el alumnado

📄 Ikastetxe honetan, zer gauza hobetu behar lirateke? *¿Qué cosas crees que habría que mejorar en este colegio?*

📄 Zer gustatuko litzaizuke egitea kurtso honetan? *¿Qué te gustaría hacer este curso?*

📄 Kurtso honetako klaseak antolatzen dituzten irakasleei, zer eskatuko zenieke kontutan izan ditzaten? *¿Qué les pedirías a los profesores y profesoras que tuvieran en cuenta al organizar las clases de este curso?*

**Behar eta espektatiben sintesia eta ikastetxearen IHP edota
ICParekiko koherentziaren analisia.**

síntesis de necesidades y expectativas para el curso y análisis de
su coherencia con el PEC y/o PCC del centro.

📄 Familiak: OOG, Gurasoen elkarte... *Familias: OMR, AMPA...*

📄 Irakasleria: zuzendaritza taldea, etapa-zikloak... *Profesorado: equipo directivo, etapas-
ciclos...*

📄 Ikasleria *Alumnado*

📄 Hezkuntza-komunitatearen sintesia *Síntesis de la comunidad educativa*

Proposatzen diren helburu orokorren balorapena, hezkuntza-komunitatearen behar eta nahiak eta ikastetxearen dokumentu estrategikoetan oinarriturik.

valoración y análisis de los objetivos generales propuestos basados en las necesidades y deseos de la comunidad educativa y en los documentos estratégicos

📄 **Helburuen balorazioa [bideragarritasuna eta abagunetasuna erizpideak bakarrik OOG eta irakasleriak bete beharko dute]** *Valoración de los objetivos [los criterios de posibilidad y oportunidad, solamente OMR y profesorado]*

[illegible]

Jardueren proposamena helburuka proposa de actividades por objetivos

Talde edo estruktura Equipo o estructura que propone:

IUPren helburu orokorrak objetivos generales del PAC	jarduerak actividades	arduraduna-agenteak responsable y agentes	denboralizazioa temporalización	ebaluzioa: adierazleak eta datak evaluación: indicadores y fechas
1.	1.1.			
	1.2.			
	1.3			
2.	2.1.			
	2.2.			
	2.3			
3.	3.1.			
	3.2.			
	3.3			

Ikastetxearen Urteko Plana

Plan Anual de Centro

2011
2012

Aurkibidea índice

1. Sarrera eta justifikazioa <i>introducción y justificación</i>	x
2. Helburu orokorrak eta jardueren planifikazioa <i>objetivos generales y planificación de actividades</i>	x
3. Irakaskuntza-jardueren programa <i>programa de actividades docentes</i>	
3.1. Ohiko irakaskuntza-jarduerak <i>actividades docentes ordinarias</i>	
3.1.1. Antolaketa eta funtzionamenduaren aspektuak <i>aspectos de organización y funcionamiento.</i>	x
3.1.2. Esperientziak, programak eta proiektuak <i>experiencias, programas y proyectos</i>	x
3.1.3. Prestakuntza eta garapen profesionala <i>formación y desarrollo profesional</i>	x
3.2. Irakaskuntza-jarduera osarrien programa <i>programa de actividades complementarias</i>	x
4. Eskolaz kanpoko jardueren programa <i>programa de actividades extraescolares</i>	x
5. Eskolako zerbitzuak <i>servicios escolares</i>	x
6. Ekonomia-kudeaketarako plana <i>plan de gestión económica</i>	x
7. Hezkuntza-komunitateari informazioa helarazteko plana <i>plan de información a la comunidad escolar</i>	x
8. IUPren garapenaren eta ikastetxearen funtzionamenduaren jarraipena. <i>seguimiento del desarrollo del plan anual y del funcionamiento del centro</i>	x
9. Eranskinak <i>anexos</i>	x
9.1. OOGren onartze-agiria <i>acta de aprobación del OMR</i>	
9.2. Ikastetxearen plan espezifikoak <i>planes específicos del centro</i>	

1. Sarrera introducción

📄 **Helburuen aukeraketarako oinarri era arrazoiak** *Explicación de las razones que justifican la elección de los objetivos*

📄 **Erabakiak hartzean eragina izan duten aspektu edota faktoreak** *Aspectos y/o situaciones que han determinado la toma de decisiones*

📄 **Egiteko prozedura eta lan-metodologia** *Proceso de elaboración y metodología utilizada*

📄 **Hezkuntza-komunitatearen ekarpenak** *Participación y aportación de datos de la comunidad*

	bai	ez	zer-nola	qué-cómo
Klaustroa <i>claudio</i>				
Batzorde pedagogikoa <i>Comisión Pedagógica</i>				
Zikloetako taldeak <i>Equipos de ciclo</i>				
Mailletako taldeak <i>Equipos de nivel</i>				
Departamentuak <i>Departamentos didácticos</i>				
Proiektuen arduradunak <i>Responsables de proyectos</i>				
Zikloetako koordinatzaileak <i>Coordinadores/as ciclos</i>				
Ikasleriaren ordezkariak <i>Delegados/as del alumnado</i>				
Familien ordezkariak <i>Representantes familias</i>				
Admin. eta Zerbitzuen langileria <i>Personal Adm. Serv.</i>				
Zuzendaritza taldea <i>El equipo directivo</i>				
Entrepresak-erakundeak <i>Empresas-instituciones</i>				
Beste batzuk <i>Otros (identificar quiénes)</i>				

2.1. Helburu orokorrak objetivos generales

1

Helburuaren formulazioa

Kontuan hartu diren iturburuaren aspektu zehatzen identifikazioa eta deskribapena eta eraginda diren ikastetxearen esparruak

iturburuak

- ☐ hezkuntza proiektua
- ☐ plan estrategikoa
- ☐ zuzendaritza proiektua
- ☐ curriculum proiektua
- ☐ AJA
- ☐ hobekuntza plana
- ☐ urteko memoria
- ☐ emaitza akademikoak
- ☐ ikasleriaren proposamenak
- ☐ familien proposamenak
- ☐ adm. eta zerb. proposam.
- ☐ beste barne agente batzuk
- ☐ hezkuntza administrazioa
- ☐ kanpoko agenteak
- ☐ beste batzuk

2

Formulación del objetivo

Identificación y descripción de los aspectos concretos de las fuentes que se han tenido en cuenta y ámbitos del centro al que afecta

fuentes


- ☐ proyecto educativo (PEC)
- ☐ líneas del plan estratégico
- ☐ proyecto de dirección
- ☐ proyecto curricular (PCC)
- ☐ reglam. organiz. (ROF)
- ☐ plan de mejora
- ☐ memoria anual
- ☐ resultados académicos
- ☐ propuestas alumnado
- ☐ propuestas familias
- ☐ propuestas adm. y serv
- ☐ otros agentes internos
- ☐ administración educativa
